1. zenbakia 2025eko iraila

ELIKAENEA

BULETINA

Azoka bete, herria elikatzeko!

VERDURY HALL FESTA

URRIAK 11

OXIRONDO AZOKAN

ZER DA VERDURY HALL?

Bergarako azoka San Martin plazan kokatua zegoen duela hamarkada batzuk. Bertan, ospatzen ziren jaialdi eta dantzaldiak *Verdury Hall* izenarekin egin ziren ezagun. Tuterako 'barazki harrotasunaren jaia' eta Bergarako '*verdury*'-ren inspiraziotik sortutako festa duzue. Azoka herritarrentzat topaleku izan zen orduan, gaur egun ere hala izatea nahi dugu.

BAZKARI HERRIKOIA ETA KONTZERTUA

Oxirondo azokako baserritar eta merkatarien produktuak oinarri izanda, **bazkari herrikoia** egingo dugu azokako kanpoaldean guztiok elkarrekin. Bazkaltzeko Elikaeneak *paella* prestatuko du azokan bertan, eta jan-edana eta umore ona ez dira faltako. Bazkalostean **Petti**ren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu.

Tiketak Elikaenean bertan erosi daitezke 10€ren truke, animatu!

EGUAZTENAK OXIRONDON

DATOZEN EKINTZAK

Eguazten arratsaldero, baserritarren azoka egiten da Oxirondon. Horrekin batera, sasoiko barazki batekin errezeta goxoa prestatu eta pintxoak banatzen dira bertan, berriketarako tartea eskainiz.

Horretaz gain, tarteka ekintza bereziak antolatzen ditugu. Datozenak:

- **Urriak 15 .** Sagar dastaketa Lizasagarren eskutik
- **Urriak 29.** Xanguli manguli, eman gaztainak guri! Gaztaina erreak

LIBURU ETA HAZIAK SALGAI

BIZI BARATZEA eta ARGIAko **argitalpenen salmenta gunea** berritzen ari gara. Udazken honetan, hainbat nobedade izango ditugu, 'Bizi baratzea' udazkeneko alea, 2026ko egutegia zein agenda eta Onintza Enbeitaren liburua 'Bizitza baten txatalak'. Honez gain, gure ekoizleek gorde eta ekoizten dituzten **ALEKA hazi ekologikoen** eskaintza zabala daukagu gurean, balkoi zein baratzerako.

BIZI BARATZEA TXOKOA

WEBGUNE BERRITUA!

ALBISTEAK ETA ERREZETAK

www.elikaenea.eus webgunean irakurgai izango duzue hemendik aurrera Oxirondo azokako agenda, albiste eta sukalderako euskarri ezberdinak (errezetak, gomendioak...). Goiena komunikazio taldearekin elkarlanean ekoiztutako *Ezkaratzean* telebista saioko atal guztiak ere ikusgai dituzue.

AZOKATIK AZOKARA

Azaroak 7, 8 eta 9an Biarritzen egingo den 20. Lurraman parte-hartuko dugu eragile bezela. Biziola eta Elikaguneko lagunekin batera erakusmahaia jarriko dugu. Bertako laborari eta eragileekin harremanak indartzeko aukera bikaina!
Lurrama bisitatzera animatu!
info **+: www.lurrama.org**

LURRAMARA GOAZ!

AZOKAREN BIZIBERRITZEAN LEHEN URRATSAK

Urtebete herri-proiektu hau abiatu genuela, eta bide hau hasi baino ez da egin. Denda, sukalde, azoka eta zerbitzu guztiak hobetzen eta berriak abiatzen ari gara, hemen ikasturte honetako berrikuntzak eta azken hilabeteen balantzea.

AZOKEN EREDUA LANTZEKO SAREAN LANEAN

Elikaenearen sorreratik beste azoka batzuekin sarean lan egiteko beharra ikusi dugu. Horretarako, *Red de municipios por la agroecologia* sarea, Asunek behatokia eta Justicia Alimentaria izan ditugu bidelagun. Egiteko moduak, gobernantza eta belaunaldi erreleboa dira konpartitzen ditugun kezketariko batzuk. Beste esperientzia batzuetatik ikasi eta baita gure esperientzia kontatu ere! Datorren urriaren 2an Iruñako Santo Domingo merkatuaren inguruko prozesuan parte-hartuko dugu!

DENDA-TOPAGUNEAN ZER?

Debagoieneko zein Euskal Herri osoko elikagaiak eta produktuak ditugu Elikaeneako dendan. Agroekologia prozesu moduan ulerturik, gure asmoa da dendako eskaintza zabaldu, irizpideak landu eta ekoizle txiki gehiagorekin lan egiteko aukerak etengabe indartzea. Hiru erronka ditugu une honetan:

- Freskoen eskaintza bermatu eta antolaketa findu
- Produktu-gama zabaltzea
- Urteko egutegi-plangintza lantzea

Honako ekoizle hauekin hasi berri gara lanean: Ibarbi kooperatiba (sagarrak eta elaboratuak), Beñat Ibarguren (ahabia), Goieko (txahal-okela), Esneko (txahal eta moxal okela), zurgarri (perretxikoak), Daonaz (berakatz beltza), Txaramela (pasta), Saalda (hezur salda), Lizarralde (sagarrak), Bidaurre (sagarrak)...

EKOIZLEA ZARA EDO ELIKAENEARAKO ELIKAGAI INTERESGARRIRENBAT EZAGUTZEN DUZU?
JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN
INFO@ELIKAENEA.EUS

JANTOKIAK ERALDATZEN HASI GARA

Debagoiena mailan, elikadura burujabetzan pausuak emateko egitasmo sendoak garatzen ari gara azken urteotan. Horren adibideko dira, Tokixan egitasmoa eta herrietako elikadura mahaiak. Eskualdeko zein hurbileko ekoizle txikien ekoizpena trakzionatzeko, funtsezkoa izango da Debagoieneko horniketa dispositibo bat eratzea eta tokiko azpiegiturak garatzea.

Une honetan, Elikaeneako azpiegiturak erabiltzen dira koordinaziorako eta 4 ikastetxe/jantokirekin elkarlanean ari gara Bergara eta Debagoienean. Horniketaz harago, eragile eta herritarrak azokako proiektua ezagutzeko aukera izaten ari da.

Jantokien eraldaketa proiektuak leku gehiagotan landu eta hedatzeko antolaketa indartu nahi dugu ikasturte honetan zehar, prozedura zein sistemak profesionalizatuz. Bertako elikagai hauek hornitzea lortu dugu: bertako barazki, fruta, txahal-okela, esneki eta arrautzak.

SUKALDEAN HAMAIKA SALTSA

Urte honetan zehar, Elikaeneako sukaldea ikasketa zein elkarlanerako lekua izaten ari da. Bertako ekoizle zein azokako merkatarien elikagaiak oinarri, sukaldeko lantaldea eta proposamenak moldatzen joan gara. Helburua, herritarren eta ekoizleen arteko loturak indartzen jarraitzea, sukaldeko saltsa eta martxa lagun.

Une honetan honako zerbitzu eta dinamikak ditugu martxan:

- **Janari prestatua** egunero. Bi plateren konboa zein plater solteak aukeran.
  - Eltzekoak, barazki platerak, arrain eta okelak saltsan, quiche eta biribilkiak...
- Eguaztenero, **sukaldaritza zuzenean:** Asteazkenero egindako errezeta guztien liburuxka argitaratuko dugu laster, adi egon!
- **Ekitaldietarako catering zerbitzua**
- **Ikastaroak:** aurki emango dugu udazken-neguko eskaintzaren berri.

ENKARGU ETA AURREKONTUAK

INFO@ELIKAENEA.EUS
681 66 08 63

DENDAKO ENKARGUEN EGUTEGIA

- BEHIEKO esne eta gazta ekologikoak: asteartero
- LARRETA behi esne gordin ekologikoa: asteazkenero
- EGUZKI ogi eta opil ekologikoak, astearte eta ostegunero
- ERRASTIKO ogi eta gozo ekologikoak, astelehen, astearte eta ostegunero
- IRRIKA gluten gabeko ogia eta gozoak asteartero

Enkarguak: telefonoz, wassapez edo dendan

Behi, ahuntz eta ardi esnekiak egunero dendan salgai.